

Noaua!!

www.noaua.com



Igandean,
truke eguna Txokoalden

Xabier Olano



Garazi Iturralde




Euskaldunak txapeldun
Munduko Kayaksurf Txapelketan

I. URRUZOLA ARROZTEGIA

**Konfiantzazko arotza nahi baduzu,
etor zaitez gurera**

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.



Oria etorbidea 4, behea, LASARTE
(Errekatxo jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371 200 • 610 413 131



munalurra 8, Usurbil

943 36 21 63
660 388 652 - 608 16 77 92

- Zerbitzu azkarra eta etengabea 24h
- **TANATOPRAXIA** eta **BERRERAIKETA** zerbitzua Euskal Herrian eta atzerrian.
- **ADN frogak** eta **ADN gordagailuak**
- **BEILATOKI GUZTIETAN** zerbitzuak
- **ERRAUSKETA** eta errauts-kutxak
- **ASEGURU** konpaini **GUZTIAK**, deiguzu zuzenean denetaz arduratzen gara
- Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo beilatokia **DOAN** izango da gure eskutik

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu





MIKROPIGMENTAZIOA

**IRUDI EZIN HOBEA LORTZEKO
EGUN GUZTIETAN
EGUN GUZTIAN ZEHAR**

ZER DA?

Mikropigmentazioa espezialitate estetiko bat da, azalean ematen den minarik gabeko pigmentazio-zitada batean oinarritzen dena. Helburua ia betirako ezpainak, bekainak eta betazalak zuzentzea, dotoretzea eta orekatzea da; emaitza naturala eta gainontzekoentzat ia ikusezina izango da.



Azaroak 7, astelehena
MIKROPIGMENTAZIOAREN ERAKUSTALDIA
(ATEAK ZABALIK)

• Azterketa eta bisagismoa **DOAN** (mikropigmentazioarekin izango zenituzkeen emaitzen froga)

Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41 (egun guztia irekia)

-20%

Albisteak iruditan !!

Giro onean hasi eta giro hobean amaitu dira San Praixkuak

Jende asko ibili zen larunbatean Aginagan, San Praixku jaietako azken egunean. Jai-giroa ordu txikiak arte luzatu zen, Larra Dj disko jartzailearen saioarekin.

Jaietako argazki asko ikusgai jarri ditugu noaua.com web orrialdeko Argazkitegian. Baina denetan hauxe izan da atentzio gehien deitu diguna. Trainerila txapelketan, lehen aldiz etxean geratu zen bandera eta aginagarrek gogotik ospatu zuten.



HERRI AFARIAN, KALEJIRAN IBILI ZIREN TRAINERILA TXAPELKETAKO BANDERAREKIN.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Egunekeo Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kiroldgia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



NEREA ZINKUNEGI

Komunak ez du magiarik egiten

Udazkeneko hego haizeak salatzen gaitu eta lotsarik gabe, modu elegantean gainera, jolasti, zalapartan dakartza lurrean dabilzan kolore bizitako plastiko zoragarriak, kalejiran, korroan, dantzan ariko balira bezala. Espektakuloa da benetan, haizeak nola zirkunferentzia perfektuak eginez mugitzen dituen gure bizitzatan hain presente dauden eta hainbeste maitatzen ditugun kolore biziko plastikoak. Apurka-apurka bazterretan multzo txikiak agertzen dira eta haize ufadak jotzen duenean hamaika aldiz entseatutako koreografia hasten dute aldi berean bazter ezberdinetan.

Ze gauza!!! Ah, plastiko zoragarriengatik ez balitz, ze mugituko luke udazkenean dabilen haizeak?!! Gure ile ajatuak agian?? Suabizante usaineko jantziak?? Balkoietatik zintzilikatutako baratxuri eta piperrak?? Alde ederreko espektakulua eskaintzen digute plastiko zaratsuek!!

Lasaikerian erori gea!! Relajatu in gea!!

Udazkeneko haizea dabilenean hostoak dira biraka ikustea gustatzen zaidana, kaleko bazterretan izan edo errepidean, zeru gorriak eta onddo usaina.

Aspaldian, eta batez ere asteburutan, herriko kaleak zikin antzera sumatzen dira, zigarro muturrak nonahi, kolore bizi gehiegi lurrean, plastiko gehitxo. Eta batek pentsatu dezake, koloreak direlako biziegi edo, umeen gauzak direla, keba-keba...

Zapuztera noa, baita ere, eta barkatu, batzuek komun zuloarekin duten ideia erromantiko bezain absurdoa. Ezetz ba, komunak ez duela magiarik egiten, bertara botatzen diren fardel, konpresa eta bestelako ipurditik (edo) atera ez den ezer itsasoan agertzen dela orain edo geroxeago, kasurik onenean komunitateko hodian geratzen, hori bai garesti samar atera liteke magia trukoa.

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: urriak 21. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 17.

** Ezizena ere onartzen da, baina idatziaren egile den gizabanakoaren NA edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia (Ika-mika araudia, NOAUA! astekaria)*

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 372 679 eta
649 435 470
kale nagusia 47, beheka A

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Udarregi Bertso Sariketa, finalera bidean

Bota Punttuba Bertso Eskolak, lehen aldiz, Udarregi Bertso Sariketa antolatu du. Bi finalerdiak jokatu dira dagoeneko. Bertsolari helduen saioa, Santueneko jaietan burutu zen. Gazteena, pasa den asteburuan Aginagako jaietan. Hauxe, Bota Punttubatik Aginagako saioaren inguruan NOAUA!-ra bidali duten kronika.

“Oso saio polita izan genuen Aginagako jaietan. Udarregi Sariketako gazteen finalerdia ikusteko 90 pertsona bertaratu ginen, finalerako sailkatuak dauden 3 beteranoak tartean. Giro polita beraz eta eliza zaharra bete antzera, jendea gogotsu Aitzol Barandiaran, Imanol Lizarazu, Ane Labaka, Maialen Velarde, Ainhoa Agirreazaldegia eta Eneritz Zabaleta entzuteko.

Zortziko handian oraindik berotu ezin ibili ziren. Ane eta Maialen ongi hasi ziren ordea, puntuak batzen. Ondoren etorri ziren zortziko txikiko ariketak, eta hor bai, zorrotzago aritu ziren. Aitzol eta Ane bikotekide paperean jarri zituen gai-jartzaileak. Aitzolek maitalea etxera eramanez Ane ez zegoela aprobetxatu nahian baina gelako atea irekitzean han zegoen Ane beste maitale batekin. Bizi aritu ziren, Anek sofara bidali zuen Aitzol maitalearekin eta gosaritan ikusiko zirela erantzun honek. Eneritz eta Imanol berriz Oriako azken bi angulen azalean izan genituen.

Seiko motzean Eneritz baionarrak gora egin zuen eta puntu mordoxka bat batzeko aukera aprobetxatu egin zuen, Ainhoaren paretsu. Ainhoa eta Ane bi neraberengurako paperean aritu ziren. Ikastolatik deitu zituzten biak ikas bidaian larri gorritan ohean harrapatu ondoren. Oso arin eta bizi aritu ziren,



AINHOA AGIRREAZALDEGI BERTSOTAN, AGINAGAN JOKATU ZEN FINALERDIAN.

Ane ez zen batere larritu bere semea ergela zelakoan eta Ainhoak normalean halakoetan ergelak amak izan ohi direla erantzun zion.

AGINAGAN SAILKATUAK

“Maialen Velarde finaleratu zuten ikusleek; epaimahaiak berriz Aitzol Barandiaran eta Ane Labaka”

Kopletako txanda iritsi zen. Ainhoa bikain eta baita Aitzol ere. Maialenek saioko mailari eutsi zion uneoro eta ongi aritu zen. Imanolek berriz lanak izan zituen Ainhoak jarritako doinuari eusten eta trabaturen bat tarteko urduritasunak atzeman zitzaizkion, lastima!

Amaieran, giroa bero

Bakarkakoetan jo zuen goia saioak, amaieran hain justu. Ainhoa oso ongi aritu zen AHTa egiteko desjabetua izan zen baserritarren lekutik. AHTa martxan jarri eta 8 urtera hau nola erabiltzaile faltagatik ixten zuten ikustean “lurra sentitzen ez dun herriak / etorkizunik ez dauka” abestu zuen. Imanol ere

saio guztiko bere ale onenak uzteko gai izan zen lanik lortzen ez zuen afrikarren ikuspuntutik. Hala ere Maialen izan zen berriz ere hoberena. Hau egokitu zitzaion gaia “Jaiotzatikitsu izan zara. Gaur ebakuntza-gelara sartzeko zain zaude ikusten hasteko”. Polit jolastu zuen koloreekin. Lehen bertsoa hala amaitu zuen “ta nik aukeratu hemendik aitzin / begiak itxi edo ez” eta bigarrenak hala zioen “Irrirei urdin kolore iluna / jarri izan nien luzaro / eta malkoei berde argia /esperantzagatik klaro / jende gehiegi bizi delako / kanpo presio esklabo / operatu ta ingurukoei / azaldu nahian nago / ikusten duen asko dago la / ni baino askoz itsuago”. Zumaiarrarenak saio guztian txalo gehien jaso zituzten bertsoak beraz.

Finala, azaroaren 12an

Agur bertsoak abesten ari zirela epaileen kabalak eta jendearen botoak eta azkenean Maialen Velarde finaleratu zuten ikusleek eta epaimahaiak berriz Aitzol Barandiaran eta Ane Labaka. Badugu seikotea I. Udarregi sariketako finalerako beraz, Patxi Etxeberria, Olaso eta Luis Otamendi zain dituzue gazteek! Azaroaren 12an ikusiko dugu elkar!”.

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAQUISIA 10- etzekealde
943 372 795

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
eraikuntzak-OBRAK-ERREFORMAK

Otar-Goxo
Elizkarguak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

KALEBERRI

IRATI PORTU

Euskal dantzak, martxan!



Urriaren erdialdera iritsi gara dagoeneko eta konturatzerako ikasturte berrian murgildu gara. Kuriosoa da ikasleak ez garen asko eta askok ere inkoszienteki nola zatitzen dugun urtea ikasturtetan. Txikitatik barneratzen dugun hainbat gauzetako bat izango da.

Ba esan bezala, hasi da ikasturte berria eta hasi dira klaseak eta klasetik kanpoko aktibitateak ere. Ni euskal dantzei buruz hitz egitera noa gaurkoan.

Joan den ostegunean, hilaren 6an, ospatu zen bilera gurasoekin eta behin behineko ordutegiak zehaztu ziren bertara gerturatutakoekin. Printzipioz honakoak izango dira:

- LH1ekoak astearteetan 16:30etik 17:30era.
- LH2 eta LH3koak asteazkenetan 16:30etik 17:30era.
- LH4, LH5 eta LH6koak ostiralean 18:00etatik 19:00etara.
- Mutilak astearteetan 17:15etatik 18:15etara.

Inor animatzen bada edo gogoarekin geratu bada, ager dadila bere adineko ordutegi barnean, oraindik taldeak guztiz osatu arte parte hartzeko aukera izango baitu.



Klaseak aste honetan hasi dira. Informazio gehiago jaso nahi duenak dantzataldea@usurbil.com helbide elektronikora emaila idazteko gonbitea egiten dute bertako arduradunek.

Bide batez, aurreko urteetatik dantzako arroparen bat entregatzeko etxean inork baldin badu, esan klaseren batetara gerturatu daitekeela Agerialdeko lokalera (edo Udarregiko barne patiora) eta bertan dagoen begiraleari utzi.

Zorte on ba dantza taldeko lagun guztiei eta urte ona izan dezazuela!

KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

Teknologia berrien amaiera?



Azken aste honetan mundu osoan zabaldutako den notizia baten berri izan dugu gurean ere: Steve Jobsen heriotza. Nire inguruan, eta irrati zein telebistetan entzun ditut Apple etxearen etorkizunari buruzko zalantzak, burtsan izango duen eragina eta ea hemendik aurrera ez ote dugun maila bereko beste teknologia berririk ezagutuko. Telefonoa, teletrofono izenarekin, Antonio Meucci delakoak asmatu omen zuen 1857. urtean bere bulegoa eta logelaren artean konexioa izateko (aidanean emaztea ohean zuen) baina patentatzeko dirurik ez omen eta inork ez omen zuen aintzat hartu. Kontuak horrela materiala Alexander Graham Bellen eskuetan erori eta moldaketa eta egokitzapen batzuk egin ostean 1876an honek bere bezala patentatu omen zuen. Geroztik, berau ezagutzen dugu telefonoaren asmatzaile bezala. Pentsatzen dut asmatzaile hauek zendu ziren egunean batek baino gehiagok usteko zuela aro baten amaiera zela hura baina agerian da ezetz. Pentsa ezazue ordutik hona zenbat aldaketa, moldaketa, egokitzapen, hobe-kuntza eta abar jasan ote dituen orduan asmatutako telefonoak. Lasai beraz aurrerantzean ere izango baita asmatzaile berririk, asmakizunik eta teknologia berrien gose denik.

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

Andatzara, txoko eder bila



Ailegatu da, udazken koloretan gaude, Benito Lertxundiren abesti haren ize-nak zioen moduan. Nahiz azken aste-otako eguraldiari erreparatuta, uda oraindik ez dela amaitu dirudien. Eguzki orduak murrizten joango dira aurrerantzean, giroa hozten, hainbeste desiratutako oporrak atzean utzi eta egunerokoan murgiltzen... Baina har dezagun arnas pixka bat eta goza dezagun urtaro honek eskaintzen dizkigun une eta leku ederrez. Badugu horretarako proposamenik. Argazki lehiaketa antolatu dute Andatza Mendizale Elkarteak. "Andatzako txokoak" izenarekin antolatu dute ekimena eta izenburuak dioen bezala, inguruotan dauden leku ikusgarri, eta ziurrenik baita ezezagun horiek erretratatzeko da, txapelketan parte hartzeko asmoa dutenei jarri dieten erronka.

Txoko ederrez gozatzeko ez da urrutira joan behar. Gonbita beraz egin dago, kirol pixka bat egin, osasuna zaindu eta paraje ederrez gozatu nahi duenak Urdaiatatik gora abiatu besterik ez du. Eta azaroaren erdialdera arte, argazki kamera hartu eta erretratuak ateratzeko deialdiarekin, orain gainera, aitzakia bat gehiago bada Andatzako mendi buelta egiteko. Hurren arte!!!

AGINAGA

M^A ANGELES ARRUTI

Bai, bai, aurten Agiñak bai!



Bost urte igaro behar izan dira, baina aurtengo jaietan jokatu den Trainerila Txapelketako bandera Aginagan geratzea lortu dute. Zorionak arraunlari taldeari!!!

Urriaren 1ean San Praixkuetako herriafariaren aurretik ongi etorria egin zitzaizen eta afal ondoren, kalejira banderarekin. San Praixkuetako hasiera honen biharamunean, igandean, eliza oso dotore jarria zegoen.

Meza nagusian bost apaiz aldarean eta bi monagillo dantzariz jantziak. Bandera ere aldarean, denek ikusteko aukera izanez. Etxeberria eta Garmendia bertsolariekin, denok festa giroan.

Eta helduen eguna izanik, aizkolari eta harrijasotze saioa denon gozamenetarako. Aipatu beharra dago, jaietako antolatzaileek lepoko zapi urdina ekarri ziotela apaizari, jartzeko eta hark baita jarri ere. Detaile polita bi aldeetatik.

Aginagako San Praixkuak direla eta, arraunlariak asko aipatu ditugu aurreko NOAUA!-n eta nik gutxiago aipatzen diren jaietako beste ekitaldi batzuk adieraziko ditut.



Oilasko biltzaileak edota aginagarren artean jokatu ziren herri kirol saioak: txinga eta zakuarekin korrika, lokotxa eta sagar biltzen, artoa aletzen, trontza egurra moztzen aritu ziren. Hor ditugu bestalde, emakumeek eginiko eskulaneekin bisitatu ahal izan den erakusketa.

Tiro platoa, toka txapelketa eta joan diren bi asteburuetako ekitaldiak antolatu dituzten guztiei, eta txistek eta aurkezle lanak egin dituen Manuel Mari Galarraga, Aldapa eta emakume taldeari. Milesker, herri osoari. Aupa Agiña!!!

ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

Kinten kintoak



Euskal Herritik irten eta munduko beste puntura joan oporretara, eta hantxe euskaldun bat. Ohikoa ezta? Geografikoki gerturatu eta distantziak txikiagotuta, antzeko zerbait gertatu ohi da atxegaldetarrokin ere. Asteburuan Aginagan auzoko ordezkari zabal bertaratu zen San Praixkuetara. Eta hango jaiei buruz hitz egiten hasita, ez nuke aipatu gabe utzi nahi, adin tarte desberdinekoak biltzeko duten ohitura. Kinto bazkari eta afariak egitekoak alegia.

Hogei urte inguru dituztenetatik hasita, otordu morda egin ohi da, izan Aginagako zein beste txokoren bateko festetan, edo baita jai girotik aparte ere. Azken aldian, bi deialdiren iragarkiak ikusi ditut NOAUA!-n. Aukera ederra, egunerokotasunean gutxi elkar ikusita, berriz biltzeko. Aspaldiko oroitzapenak berritzeko, txikitako bihurrieriez barre pixka bat egiteko, eta batez ere tarte atsegin bat bizitzeko. Herrian ohitura hain hedatua egonik, behin edo behin kinten afari erraldoi bat egitea ez legoke gaizki. Herriarren arteko loturak are gehiago sendotzeko, kintoen kinta afari bat. Zergatik ez? Gora 83!!!

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Urri?

Urri hasiera, badator kanpotarra Zubietara. Aitzakiarik gabeko eguraldia. Korrikalari andana, Behobia-Donostia helburu. Plaza umez lepo, ezkutaketan, futboleak, txirristan behera.



Frontoian orain pala, orain zesta. Mendiko bizikletak Andatzara bidean.

Hara!, patinetan ere Donosti Roller-ekoak. Kaxkapera bidean yogazaleak; ez ba, Tai-Chikoak dira. Baserritarrek babarrunetan. Zaldi gaineak zalduna.

Sartu da kanpotarra tabernan. Kartelak paretan. Euskal Herriko mendi duatloiko proba Zubietan. Euskal Jaia urriaren 12an. Pilota jaialdia bezperan.

Barran NOAUA Aldizkaria. Garazi Iturralde gazte zubietarra Ameriketako Estatu Batuetan Kayaksurfeko munduko txapelketan txapelaren eskizari.

Tabernariak: "Kaixo, zer nahi duzu?" Kanpotarrak: "Jakini nahi nuke zenbat jende bizi den Zubietan...".

Tabernariak: "Ez dakit ba, gutxi batzuk, 500 batedo...".

Zubietan urrian urri ez...

Konpostatze komunitarioa egin nahi dutenentzat, izena ematea ireki du Udalak

Hondakin organikoak auto-konpostatzen dabilta herriko ia 500 sendi. Baina konpostatzen dutenen kopuruak gora egin dezake laster. Usurbilgo Udalak, konpostatze komunitarioa bultzatu nahi du, etxean bere kabuz zati organikoa ongarrrian bihurtu nahi baina ezin dutenentzat. Ostegunean, 18:00etan ekimena jendaurrean aurkeztuko da Sutegin. Usurbilgo organikoaren kudeaketaren, konpostatze komunitarioari lotuta nazioartean dauden esperientzien eta egitasmoa Usurbilen nola gauzatuko den, horren guztiaren berri emango dute. Ibon Goikoetxea ingurumen alorreko udal teknikariak dakartza zehaztasun gehiago lerrootan.

NOAUA! Zein da konpostatze komunitarioaren egitasmoaren jatorria?

Ibon Goikoetxea. Atez ateko bilketa martxan jarri zenean autokonpostatzeko kanpaina handia egin zen, eta hori egin ahal eta nahi zuenak aukera hori izan du. Baina badira atzerrian beste esperientzia batzuk; etxean egin ezin duenari, eremu egoki bat prestatu eta komunitatean egiteko aukera ematen diotenak. Udaletik jende horri animatu eta laguntzea nahi dugu, komunitatean ere bizilagunekin batera autokonpostatu ahal izateko.

IBON GOIKOETXEA

“Herritarrak interesa badu, eman dezala izena udaletxean edo atez ateko bulegoan”

N. Usurbilgo kasuan, Kaxkoko bizilagun batek aukera izan dezake konpostatze komunitarioa egiteko. Zer nolako funtzionamendua izango du?

I. G. Herritarrak interesa badu, eman dezala izena udaletxean edo atez ateko bulegoan. Gero ikusiko dugu non bizi den bizilagun hori, inguruan zer eskaera dauden eta talde gutxieneko bat osatzen badugu, herriko parke gune edo gune berdeetan, ondo iruditzen zaigun lekue-tako bat proposatuko genieke konpostatze komunitarioa egiteko. Gunea egoki-



IBON GOIKOETXEA INGURUMEN ALORREKO UDAL TEKNIKARIA DA.

tuko genuke; familia kopuruaren arabera, hesi batekin ondo jarri, bere autokonpostadora handi batzuk izango dituzte... Bizilagunek arduradun bat izendatuko dute, gure laguntza edo koordinazio lan bat behar bada, ordezkari bat izateko.

N. Euren kabuz egiten duten konpostatze komunitarioaren esperientziarik bada halere herrian?

I. G. Bai. Baditugu esperientzia batzuk agian ez horren modu formalean eginak. Orain horretarako gune egoki eta txukun bat prestatu nahi dugu, bizilagunen ekimena lagundu.

N. Autokonpostatzeak Usurbilen orain arte izan duen ibilbidearen inguruan zer balorazio egin dezakezue?

I. G. Epe laburrera jarraipen bat egitekoak gara. Atez atekoa eta autokonpostatzea martxan jarri zirenean, bizilagunei esan zitzaizen autokonpostatzearekin jarraipena egingo genuela. Orain, urte bukaerarako pertsona batek horren jarraipena egingo du, jendeak nola egiten duen ikusteko. Autokonpostatzen duten herritarren etxe atariko zintzilikagarri orok, seinale gisa bere eranskailua du. Herritarrekin harremanetan jarriko gara nola doakien jakiteko.

%40ko hobia konpostatzen dutenentzat

NOAUA! Autokonpostatzean dutenen kasuan bezala, konpostatze komunitarioa egiteko ahaleginagatik trukean udal laguntza jasoko dute herritarrek?

Ibon Goikoetxea. Hondakin organikoa kudeatzeak Udalarentzat kostu bat suposatzen du. Horregatik, hobia aplikatu daitekeela estimatua dugu. Zati organikoa bere kabuz kudeatzen duen herritar orok %40ko hobia izango du Usurbilen.

N. Zertan eragiten du edo lagungarria da, organikoa konpostatzea?

I. G. Konpostatze prozesu batek norberak bere hondakinak kudeatzeko. Hondakin bat gutxiago sortzen duzu azkenean, hondakin batetik ongarririk aterako dugu. Bestela ere hori egiten du udaletxeak, baina beste kostu batekin. Bilketa zerbitzu batekin Lapatzeko plantara garraiatu behar dugu. Zentzu gehiago du eta ekologikoagoa da, ahal duenak etxean konpostatu egitea.

Nafarroan ere atez atekoarekin hasteko asmoa dute

NOAUA! Nafarroako Sakanan eta Zumaian atez ateko bilketa martxan jarri behar dute. Aitzindaria izan den udalerrri honetatik, nola hartzen dituzue albisteok?

Ibon Goikoetxea. Atez ateko bilketa zabaltzen doan heinean, ikusten da guri begiratu eta jendeak zerbait ikasi duela atez ateko bilketarekin; hondakinak nola kudea daitezkeen hobeto.

N. Usurbilgo azken hileotako atez ateko bilketaren daturik baduzue?

I.G. Hilabetez hilabete jarraipen lan bat egiten ari gara. Atez ateko bilketatik egiten dena, %80 inguruan dabil. Gero jada hondakinen kudeaketa osoa hartzen bada, %86koa da ehunekoa. Aurtengo guztia urte bukaerarako jakingo dugu.

N. Hondakinak %100 birziklatzeko, %10 pasatxoko erreusa geratzen da. Zati horrekin zer egin, etorkizuneko zuen erronketako bat izango da?

I. G. Sortzen den erreus hori ahalik eta gehien gutxitzea. Pauso txiki batzuk ematen ari gara.

N. Konpostatzeak beti lagunduko du ehunekoak jaisten?

I. G. Hondakin kopurua gutxituta, birziklapena areagotuko zaigu. Gaur egun, herrian konpostatu ezin baina nahi duen jendearen eskaera egon litekeela uste dugu eta horri irteera emateko asmoa du Udalak.

N. Zer esan diezaiekezu interesdunei?

I. G. Nahi dutenean, udaletxeko



ZUMAIKO UDAL ORDEZKARIAK, MORATORIA ESKATU ZUTEN GARAIAN.

ingurumen zerbitzuan edo atez ateko bulegoan Udala prest dagoela interesa duen edonori izena hartzeko. Gero beraiekin kontaktuan jarriko gara, herrian konpostatze komunitarioko guneak prestatzen joateko.

• PUBLIERREPORTAIA • **USURBILTZEN**

Trukalariak



Usurbil Zero Zabor



Urriaren 16an, Truke Eguna Txokoalden

Zaharkitua geratu da ta..., "modaz pasatua" dago ta..., teknologia berriagoa sortu da ta..., honelako "arrazoiek", erabilgarria dena zabor bihurtzen dute. Milaka eta milaka zabor tona eguneror.

Kontsumoa zoriontasunarekin lotzen duen eta herritarroei fikziozko beharrak sortetik bizi den sistema honen aurrean, gure benetako beharren eta kontsumo-menpekotasunen inguruko hausnarketa bultzatu nahi da Truke Plazaren bidez.

Gure beharrak asetzeko, diruaz gain bada bestelako biderik: TRUKEA.

Alkandora bat liburu baten truke, ahulki bat masaia txanda baten truke, etxea garbitzea txerrikume baten truke... Benetako beharrak geure artean asetzeko moduan gara.

Behar materialak asetzeaz gain, trukeak baditu hainbat abantaila:

-Besteei zer eskainia badugu, herriarentzat baliogarriak gara.

-Elkarren beharrak ezagutuz herritarro arteko harremanak eta elkarlana



HIRUGARRENEZ OSPATUKO DA TRUKE AZOKA. AURTEN, TXOKOALDEN IZANGO DA.

sendotzen ditugu, elkar laguntzeko bideak irekiaz eta herri izaera indartuz.

-Herritarren aberastasuna gure inguruan geratzen da.

-Berrerabilpena sustatzen da, modu horretan zabor kopurua gutxituz.

-Gauzek benetan duten balioaren inguruko hausnarketa bultzatzen da:

"merkatuak" ezartzen dion balioaren orde, guretzat duen erabilgarritasunaren arabera balioari garrantzia ematen ikasten dugu.

Hau dena bizitzen hasteko, urriaren 16an Txokoalden egingo den 3. Truke Egunera bertaratu besterik ez duzu. Eta gogoratu, denok dugu zerbait eskaintzeko, gauza bakoitzari guk geuk ezartzen baitiogu duen balioa!

Amador Granados txirrindularia

“Londresko Joko Olinpikoei begira nago”

Danimarkan, Roskilde hirian jokatu da txirrindularitza egokituari dagokion Munduko Txapelketa. Erlojuaren aurkako lasterketan ez zen fin egon. Baina iraupen proban, lehen postuetan ibili zen lasterketa osoan. Azken metroetan ordea, tokia galdu zuen Amador Granadosek eta azkenean 12. amaitu zuen. Denboraldia bukatu berri du. Datorren urtekoa, ordea, Londresko Joko Olinpikoei baldintzatuko dute. Hara joateko aukera asko ditu Usurbilgo txirrindulariak baina oraingoz ez daki hautatuko duten ala ez. Eramango balute, hirugarren jokoak lirateke Amador Granadosentzat.



ATENASEN ETA TXINAN EGON ONDOREN, LONDRESERA JOATEKO GOGOZ DA.

Erraz esaten da, baina txirrindularitza egokituan ere, inork ez du ezer oparitzen eta onenaren legea da nagusi. Laster esango diote Londres aldera joango den ala ez. Bien bitartean, Amerikako Estatu Batuetako Los Angelesera abiatuko da otsailean, pistako Munduko Txapelketan parte hartzera.

MUNDUKO TXAPELKETAN

“Azken metroetan, tokia galdu eta helmugan tonto aurpegia geratu zitzaidan”

NOAUA! Zer moduz zaude? Lasaia, ezta?

Amador Granados. Hiru aste egin ditut ezer egin gabe. Nekatuta amaitu dut denboraldia.

N. Munduko Txapelketan izan zara, Danimarkan. Pozik itzuli zara handik?

A. G. Egia esan, ez. Eroriko asko izan ziren errepideko iraupen lasterketan eta ez nuen gustuko lasterketa osatzerik izan. Joko Olinpikoen aurreko urtea da hau. Eta erlojuaren aurkako proban emaitza onik lortu ez zutenek, iraupen lasterketa on bat egin behar zuten, Londresko Joko Olinpikoetarako txartela eskuratu ahal izateko. Egia esan behar

badut, nik ez dut sekula horrelako tentsiorik ikusi. Bost eroriko izan ziren. Gainera, helmuga baino lehenago errotanda bat zegoen eta horrek ez zuen batere lagundu. Erorikoek ez ninduten harrapatu, baina lasterketa erabat baldintzatu zuten.

N. Lastima, ezta?

A. G. Fisikoki oso ondo aurkitu nintzen, uneoro lasterketaren aurrealdean kokaturik. Irlandar batekin ihes egiten saiatu nintzen. Baina zaila zen tropeletik ospa egitea; zirkuitua oso azkarra zen eta gainera urduritasun handia zegoen. Juanjo Mendez selekzioko kidea laugarren kilometroan erori zen eta konortea galdu zuen. Ospitalera eraman behar izan zuten. Eta hurrengo itzulian, nire logelako kide Antonio Sanchez erori eta eskumuturra hautsi zuen.

N. Erlojuaren aurkako lasterketan ere hartu zenuen parte. Zer moduz?

A. G. Erlojuaren aurkako lasterketan eguraldi kaxkarra egin zuen. Errepidea ez zegoen egoera onenean eta gainera ez nintzen konturatu, baina eserlekua gaizki neukan jarria. Mekanikoren batek bizikleta ukitu zuen eta ni ez nintzen jabetu. Hala ere, errepideko iraupen lasterketan neuzkan itxaropen guztiak jarriak eta oso ondo ikusi nuen nire

burua. Esan dizudan bezala, lasterketa osoa aurrekoen artean egin nuen, toki egokian. Baina helmugara iristean, Freireri pasa zitzaiona gertatu zitzaidan niri ere. Toki egokian nengoen baina bapatean tropela geratu egin zen, oztopatu egin zidaten bidea eta ireki beharrean, hesien ondoan aurkitu nintzen. Azken metroetan, lehiatzeko tokia galdu nuen eta tonto aurpegia geratu zitzaidan, egia esan.

N. Ze postu egin zenuen helmugan?

A. G. Hamabigarren. Baina ezin badut dominarengatik lehiatu, zein postutan iritsi naizen ez dit gehiegi axola.

N. Baina bere garrantzia izango du ba, ezta?

A. G. Bai, noski. 30 txirrindulari gaude orain Joko Olinpikoetara joateko moduan. Baina soilik 13 edo 15 izango dira hautatzaileak eraman ahal izango dituenak, Londresera joateko aukera izango dutenak. Berdintasun egoera batean, noski, postuak begiratu dituzte. Hala ere, nik domina lortu nuen iaz pistako Munduko Txapelketan eta hori da inportanteena.

N. Denboraldia amaitu duzula esan daiteke, beraz.

A. G. Bai.

“Otsailean Los Angelesera noa, pistako Munduko Txapelketan parte hartzera”

NOAUA! Amaitu da denboraldia, orain atseden hartzeko garaia da. Noiz hasiko zara berriro entrenamenduekin?

Amador Granados. Otsaila partean pistako Munduko Txapelketa egingo da Los Angelesen, Amerikako Estatu Batuetan. Onenen artean egoteko lan txukuna egin beharko dugu.

N. Zein lasterketetan hartuko duzu parte Los Angelesen?

A. G. Kilometroko lasterketa eta jazarpen proba. Eta taldea osatzen bada, baita sprint olinpikoa ere.

N. Akaso turismo pixka bat ere egin ahal izango duzu.

A. G. Oso juxtu joango gara denboraz. Dena den, ni belodromora noa. Akaso aprobetxatuko dugu egunen batean, baina normalean hotela eta belodromoa, besterik ez dut ikusten.

N. 2012a Joko Olinpikoen urtea izanik, horrek baldintzatuko du zure prestaketa, ezta?

A. G. Erabat. Joko Olinpikoei begira nago. Joango naizen edo ez, lehenbailehen jakin nahiko nuke. Entrenatzailearekin hitz egin nahi dut. Joko Olinpikoetara eraman behar banau, denboraldia beste era batean prestatuko dut. Test moduan hartuko dut Los Angelesekoa. Baina ez badut oraindik nire plaza ziurtaturik, dena eman beharko dut Los Angelesen. Beraz, bistan denez, prestaketa erabat ezberdina izango da.

N. Zure ibilbidea borobiltzeko, hitzordu ederra litzateke Londresekoa.

A. G. Bai, noski. Adinak ez du barkatzen. Askok kostatzen da horra iristea. Entrenamenduak ere, gero eta gogorragoak dira eta exigentzia maila ere bai. Nire helburua oraintxe bertan Joko Olinpikoetara joatea da. Eta Jokoetan ondo ibiltzen banaiz, akaso beste urte bat gehiago egingo nuke txirrindularitzan.



ERREPIDEAN ETA PISTAN ARITZEN DA AMADOR GRANADOS TXIRRINDULARIA.

N. Aurretik ere izan zara Joko Olinpikoetan, bitan gutxienez.

A. G. Hirugarrenak lirateke hauexek. 2004an Atenasen izan nintzen eta 2008an Txinan. Atenaseko Joko Olinpikoetan banekien dominak oso garesti zeudela eta ez nuen inolako presiorik. Eta oso ondo pasa nuen Hiri Olinpikoan.

2008an, aldiz, Txinan domina lortzeko aukera nuen baina bosgarren geratu

nintzen eta ez nuen batere gozatu. Aste honetan, ordea, Txinako Joko Olinpikoen argazkiekin *book* bat egiten egon naiz, arrebarentzat, eta orain beste begi batzuekin ikusten dut, baina bere garaian ez nuen batere ondo pasa.

Horregatik, Londresko Joko Olinpikoetara joateko gogo handiz nago. Gainera, amesten dudana domina hori eskuratzeko aukerak ditudala uste dut.

Kilometroko distantzia, bere proba gogokoena

NOAUA! Guztien artean, lasterketa onena izango da Jokoenak.

Amador Granados. Antolaketan bai, baina kirol ikuspegitik ez da onena. Esate baterako, Britainia Handiak lau txirrindulari on ditu baina kupoak direla medio, hiru bakarrik eraman ahal izango ditu. Zentzu horretan, kirol ikuspegitik Munduko Txapelketa lehiakorragoa da. Aldiz dominak balio handiagoa du Joko Olinpikoetan, soilik lau urtez behin jokatzen direlako. Eta Munduko Txapelketa, aldiz, urtero.

N. Joko Olinpikoetako belodro-

moa ezagutzeko aukera izan al duzu?

A. G. Belodromoa berria izango da. Nik Manchesterrekoa ezagutzen dut baina berri hau, Londresen eraiki dutena, hori ez dut ezagutzen. Oso azkarra dela diote.

N. Eta hori ona ala txarra da zuretzat?

A. G. Nik nahiago dut azkarra izatea. Pista oso gogorra denean, abiadura handian joan arren geldoago zoazela dirudi eta hor psikologia sartzen da jokoan. Kilometroko distantzian, nire lasterketa gogokoenean, nahiago dut pista azkarra izatea.

Kayaksurfeko munduko txapeldun, Garazi Iturralde, Xabier Olano eta Euskal Selektzioa

Xabi Olano usurbildarrari eta Garazi Iturralde zubietarrari ez zaie ahaztuko berehalakotan, egin berri duten bidaia. Euskal Selektzioa beste zortzi kideekin batera, Estatu Batuetan Kayaksurf txapelketa jokatu eta mundu mailako irabazle amaitu du taldeak. Hori taldekako lehian, banaka ere sei kide lehen hiru postuetan sailkatu baitira.

Gogotsu zihoazela iragarri zuten eta inondik ere etxerako itzulera oso pozgarria izango da eurentzat. Ameriketako Estatu Batuetan (AEB) ospatu berri den Munduko Kayaksurf txapelketa Euskal Selektzioak irabazi du. Ipar Karolinako Nags Head hiriburuan asteotan jokatu diren neurketetan parte harturiko hamar jokalarien artean ziren, Xabi Olano usurbildarra eta Garazi Iturralde zubietarra. Saiok jokatzeko hasi eta urriaren 5eko taldekako finalerako sailkatu ziren. Euskal Selektzioak, Ingalaterra eta etxekoen, Estatu Batuen aurka lehiatu behar izan zuten.

“Olatuak ez ziren oso handiak eta itsasoa pixka bat zakar zegoen, baina itsasoa-ri aurre egitea lortu dugu. Euskal selektzioa partaide guztiok egin dugu gure manga”, berri eman zion emailaz Iturraldek NOAUA!-ri. Talde garailea nor zen jakiteko eguna amaitu arte itxaron behar izan zuten. Aipatu moduan, euskaldunak irabazle azkenean, eta garai-penaren zirrara zenbatekoa izan behar zuten, horren adierazgarri zen zubietarrak adierazitakoa: “hondartza osoa ikurrinez beterik zegoen, Euskal Selektzioa izan da garaile”.

Taldeka txapelketa irabazteaz gain, Euskal Selektzioa hamar kideetatik sei,



XABI ETA GARAZI, ARTXIBOKO IRUDI BATEAN. ASTEARTEAN IRITSI ZIREN AMERIKATIK.

zegotzkie final saioetarako sailkatu ziren. Urriaren 6an buruturiko neurketetan, guztiek lehen hiru postuetan amaitu zuten. Iturralderen esanetan, “eguraldi oso ona egiten zuen, baina haize asko eta itsasoa oso zakar zegoen, zaila zegoen. Olatuak aukeratzea ez zen erraza ezta olatuak hartzeko erremontatzea. Gogor egin behar zitzaizen olatuei eta baita haizeari ere”.

Esker hitzak, laguntzaileentzat

Iraileko azken astelehenean abiatu ziren Xabi Olano eta Garazi Iturralde, Euskal Selektzioa gainerako kideekin batera AEB-tara. Bidaia prestatzeko aha-lerin bikoitza egin behar izan dute; bate-tik, mundu mailako lehiarako entrenatu dira, eta bestalde, bidaia finantzatzeko laguntza bila jardun dute. “Kamisetak egin ditugu, Bilboko festetan txosnan egon ginen lanean, bi bizikleta egin dizkigu lagun on batek, errifak egin eta zozketa ditzagun. Antolatzen genituen txapelketatik gastuak murriztu ditugu eta

geure klubaren aldetik (RNCSS) esfortzu handia egin da, ahalik eta laguntza ekonomiko handiena jaso dezagun. Talde bezala antolatzen ari gara, etorkizunean ere geure kabuz bidaia finantzatzeko. Federaziotik, Kirolgi fundaziotik eta guk biok, partikular modura Usurbilgo Udaletik ere laguntza ekonomikoak jaso ditugu”, adierazi du Iturraldek. Eskerrak helarazi nahi dizkiete laguntza eman dieten guztiei.

Selektzioa garaile eta sei kide finalista

Taldeka: Euskal Selektzioa garaile.

Banaka:

-Lehen postuak: Julen Arrizabalaga (“Junior short”), Edu Etxeberria (“Open long”) eta Luis Abando (“Grand master short”).

-Bigarren postuak: Ainhoa Tolosa (“Women long”) eta Julen Seco (“Junior long”).

-Hirugarren postuak: Garazi Iturralde (“Women short”).

LATAILLADE

ITURGINTZA
 Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua
 Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

Andoni Errazkin
Xukin
 igeltseritza orokorra
 Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
 663 08 76 71 • 943 24 34 65

Zuen
 publizitatea
 hemen
